

Amilibiak eta Lamotek, berriz ere

Loatzoko XIV. Igoera-Jaitsiera irabazi dute ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2006-05-03 ▶ IV. urtea ▶ 875. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Tolosako urteko azoka koloretsuena eta Donejakue, bide beretik

DONEJAKUE ▶ Bidea ardatz, kontzertua, mahai-ingurua, erromesaren meza eta ibilaldia izango dira

AZOKA ▶ Berdura plazak hartuko du, larunbat goizean; 4.000 krabelinez estaliko dute urteurreneko logoa ▶ 2




Donostiako San Telmo museoan aurkeztu zituzten atzo aste honetarako antolatutako ekitaldiak. N. LATABURU

TOLOSA ▶

«Inoiz egin dudan egun bateko ibilbiderik gogorrena izan da»

15 orduetik gora egin ditu Carlos Peñak Nerbioi ibaia jaisten ▶ 3



Peña, Nerbioi jaisten. I. ASENSIO

ARESO ▶

Herri-bideetako zolak berritzeko lanak ari dira egiten ▶ 7

OREXA ▶

Santakutz egunaren ekitaldiekin, aurtengo festei agur

Pilota partida, sega apustua eta pintxo lehiaketa, gaur ▶ 6



Orearrak, dantzan. ENeko MAIOZ

▶ HITZAko harpidedunen artean

Maiatzaren 4,5,6 eta 7an Ibarren burutuko den III. Garagardo Festarako BI AFARI zozketatuko ditugu.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

EKONOMIA ▶

Urteko azoka koloretsuena eta Donejakue, «bat eginez»

Aste honetan egingo den Donejakue barrualdeko ibilbidea eta XVII. Lore eta Landare Azoka aurkeztu dute, Tolosa 750. urteurrenaren agendaren baitan



Atzo aste osoko ekitaldien berri eman zuten «marko paregabean»: Donostiako San Telmo museoa. N. L.

BARRUALDEKO BIDEA

Gipuzkoa barrualdeko bidea aldarrikatzeko, martxa antolatu du ekainean Donejakuerean Adiskideen Elkarteak

buruaren gainean jardungo du. Ekitaldi berean, gainera, Juantxo Agirre historialariak bideak Tolosatik zeharkatzean dituen berrikuntzen berri emango du. Ibilbideak «turismoaz gain, kultura desberdina eta norberaren sinesmena eta burua ezagutzeko aldarrikatzeko da», baieztatu zuen Bildarratzek.

Aitzitik, ez dira ekimen bakarrik Donejakuerean inguruan antolatutakoak. Eta, urtero legez, ohiko Lore eta Landare Azoka izango da ikusgai, bere 17. edizioan. «Urtean zehar egiten diren artean azoka koloretsuena da honakoa», aipatu zuen Tolosako alkateak.

4.000 krabelin 750.ean

«Aurten zertxobait berandua dago negu gogorra izan dugu eta». Gisa honetara ekin zion Gomez Elozegi zinegotziak azokaren nondik norakoa azaltzeari. Hala, Berdura plaza loreen eta landareen erakusleho bilakatu da. Behar dituzten zaintzen berri emateko, larunbatero-larunbatero plazan biltzen diren 9 mintegizainak ariko dira lanean, goiz guztian zehar. «Bezeroak zuzenean artatuko dituzte, zalan-tzak argitzeko eta, nola ez, aholkuak emateko».

Alde Zaharreko oinezkoentzako kaleak alegria lorez jantzita esnatuko dira; izan ere, 1.000 lineal baino gehiago atonduko dituzte bertan. Hau burutu ahal izateko, Alde Zaharra Dendak elkarteak kanpaina bat eramango du aurrera, dendariak ekitaldi honetan parte hartzea gonbidatzeko. Era honetan, kale bakoitzak bere kolorea izango du. Eta, lore jokoein jarraituz, 750. urteurrena dela eta, Hirukide-Jesuinitetako haurrek lorez estaliko dute 750. urteurrenako logoa. Horretarako, 4.000 krabelin erabiliko dituzte. 10:00etan emango diote hasiera euren lanari Trianguloan eta, behin amaituta, Kultur Etxeko aurrealdean ezarriko dute ikusgai.

NOELIA LATABURU

Ekitaldi desberdinek bat egingo dute aste honetan Tolosan. Batetik, larunbatean XVII. Lore eta Landare Azoka izango da Berdura plazan. Eta, bestetik, Donejakuerean barrualdeko bidearen harira musika, mahai-inguruak, meza eta ibilaldiak antolatu dituzte. «Bi erreferentzia ditugu; Tolosaren 750. urteurrena eta bidearen proiektua», azaldu zuen Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, atzo, Donostiako San Telmo museoa inguruko jardueren aurkezpenean. Harekin batera Josemi Gomez Elozegi Turismo, Enplegu eta Garapen zinegotzia eta Donejakue Bidearen Adiskideen Elkarteak Pako Martinez eta Mertxe Landa kideak izan ziren. «Guztia nahastu dugu, giro bikaina lortzeko helburuz», esan zuen Bildarratzek.

Donejakue bidea «Tolosaldeko 28 herriek bateratuko dituen proiektua» dela goraiatu zuen. Halaber, «Tolosako Alde Zaharreko birgaitze prozesuaren barnean» sartzen dela adierazi zuen. Tolosaldea Garatzenek iaz egindako Turismo Plan Estrategikoaren ostean, badira hilabete batzuk tolosar batzuk Donejakue bideak Tolosaldean duen garrantzia bistaraten ari direla. Donejakue Bidearen Adiskideen Elkartearen datuen arabera, 3.000 lagun inguruk egin zuen iaz bidea kostaldetik. Baina bada ere barrualdeko bidea eta hau da, hain zuzen, «landu nahi dugun espazioa», Pako Martinezek jakitera eman zenez. Bide hau aldarrikatzeko, bada, ekainean 9 jardunaldiko martxa burutuko dute, «Irundik Santo Domingo de la Calzadara».

Eta barrualdeko ibilbidearen harira, besteak beste, mahai-ingurua egingo dute etzi, ostiralarekin; bertan Gerard Roussek *Donejakue bidea San Adriango tuneletik barrena* li-

Adriango tuneletik barrena liburua (egilea).

MAIATZAK 6, LARUNBATA XVII. Lore eta Landare Azoka. Goizean zehar, Berdura plazan.

Erromesaren Meza. Andre Maria parrokian, 20:00etan, Erromesaren Meza, Donejakue bideak Gipuzkoan ukitzen dituen herrietako parrokoek elkarrekin emana.

MAIATZAK 7, IGANDEA Tolosa-Beasain ibilbidea. 08:00etan abiatuta, Tolosa-Beasain etapako mendi ibilaldia, Donejakue bidearen Adiskideen Elkartearekin batera.

eta Paloma Ramos (pianoa) musikariaren eskutik. Egitaraua: *Trio en Sol, Dumky-trio, Sonata 1.a eta Suite 6.a.*

ETZI, OSTIRALA

Mahai-ingurua. Tolosako udaletxeko batzar aretoan, 20:00etan, *Tolosaldea Donejakue bidean* mahai-ingurua. Partaideak: Arantxa Arzamendi (Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendaria), Donejakue Bidearen Adiskideen Elkarteak ordezkari bat, Juantxo Agirre (historialaria, Aranzadi elkarteak) eta Gerard Rousse (*Donejakue bidea San*

EGITARAUA ▶

Astea ekitaldiz beteta dator Tolosan. Izan ere, Lore eta Landare Azoka eta Donejakueko barrualdeko bideko ekitaldiek bat egingo dute.

BIHAR, OSTEGUNA

Kontzertua. 20:00etan Donejakue bideko musika, Santa Klara komentuan. Chandra Varona (biolina), Estibaliz Ponce (biolontxeloa)

ZABALA DESGUAZEA

Beotibar Industriegunea, 18 BELAUNTZA

Tel./Faxa: 943 67 17 90
696 593 347

iragarki laburrak ▶

LANA

Etxeko lanak. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Deitu, 14:00etatik 21:00etara, 669 21 33 37 zenbakira.

Asteazkena MAIATZAK 3

AGUSTIN ENEA

CADIZ - REAL SOCIEDAD

ESKEINTZA BEREZIA

Aupa Erreal!

Ogitartekoarekin = Katxi garagardoa doan
Plater konbinatuarekin = Sagardo botila doan
Kaxuelarekin = Ardo gorri botila doan

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. III. HITZA Argazki Lehiaketako argazkiak ikusgai gure webgunean.

IGERIKETA ▶

15 ordutik gora egin ditu Carlos Peñak Nerbioi jaisten

Ur emari eskasak eta ibaian zehar dauden presek ibilbidea oztopatu zioten



Carlos Peña jaitsiera amaitu eta gero. HITZA

ESTI ZEIZA

Hamabost ordu eta hamabost minutu behar izan zituen larunbatean Carlos Peñak Laudio eta Portugalete banatzen dituen 40 kilometroak igerian egiteko. Hasiara batean, Nerbioi ibaia hamar ordutan-edo jaitsiko zuela uste bazuen ere, bost ordu gehiago behar izan zituen, ur emari eskasa eta ibilbideko presa nahiz oztopoak zirela eta.

Amaitu bezain laster, «infernu bat izan da» esaldiarekin laburbildu zuen jaitsiera. Portugaletera iristean, 300 lagunek harrera beroa egin zioten kirolariari.

Ibilbide luzea du dagoeneko Peñak. Besteak beste, Magallaneseko itsasartea eta Ness eta Titikaka lakuak zeharkatu ditu. Honez gain, Guinness errekorra gainditu zuen iaz, 24 orduz jarraian igerian arituta Tolosako Usabal kiroldegian.

CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA

«Inoiz egin dudan egun bateko ibilbiderik gogorrena izan da»

Tolosar igerilari ospetsuak, oraingoan, Chernobileko (Ukraina) hondamendiaren 20. urteurrena dela eta, Bizkaiko Nerbioi ibaia jaitsi du igerian. Honen ostean, eskertu nahi du, bereziki, Tolosako bere taldeak emandako laguntza.

Zer moduz ikusi zenuen zeure burua?

Fisikoki oso ongi nengoen. Baina orduak aurrera joan ahala, izugarriak inpotentzia nabari nuen, baldintzak oso gogorrak ziren, eta asko kostatzen zitzaizkidan aurrera egitea. Gainera, kolpe asko hartu nituen. Lehenengo hamaika orduak oso txarrak izan ziren, gaizki pasatu nuen. Azken orduetan, aldiz, askoz ere hobeto, nahiz eta gorputz guztia minberatua izan. Inoiz egin dudan egun bateko ibilbiderik gogo-

rrena eta txarrena izan da hau xe.

Momenturen batean pentsatu al zenuen bertan behera uztea?

Ez, konpromiso bat bainuen Chernobil Elkartekoekin. Egoera normalean, agian, baina eliteko kirolari bat naiz, eta oso zaila da ni erretiratzea. **Gustura geratu al zara esportazionarekin?**

Bai, oso gustura, merezi zuen, batik bat Elkartekoengatik, behar zuten dirua bildu zuten, eta jendeak erantzun zion gure deialdiari.

Zeintzuk izango dira zure hurrengo proiektuak?

Hil honetan Burgosek (Espainia) erreka bat jaisteko asmoa dut. Eta irailean-edo Pon You, Txinako lakurik handiena, zeharkatu nahi dut. ◀

ARETO FUTBOLA ▶

Laskorainek ezin izan zuten irabazi Inter talde sendoaren aurka

1-3ko emaitzarekin galdu zuten horitxoek 27. jardunaldian

ERREDAKZIOA

«Hainbat kirolean bezalaxe, areto futbolean une zailenetan beharrezkoak izaten dira sendotasuna, indarra eta eragin-kortasuna. Hori motibazioaren indarra gehituta, kontutan hartu beharreko cocktail arrisku-tsu bati» aurre egin behar izan zieten Laskoraingoek larunbatean.

Honela, norgehiagoka final handietan bezalaxe, tanteo moduko batekin hasi zen. «Entrenatzaileak Karpov eta Kasparov bailiran, beraien peoiak estrategikoki mahai gainean

kokatzen joan ziren. Karpov-en estrategia zuhurra nagusitzen ari zenean, Iñaki Kasparov estrategia mutilek, Barriolaren bitartez 1-0koa sinatu zuten», adierazi dute, konparazio bitxia eginez, Laskoraingo ordezkariak.

Hala ere, kanpotarrak azken hitza ez zutela esan eta ezbaierik gabe bigarren zatian erabakiko zela norgehiagoka argi zeukaten horitxoek. «Minutuak aurrera zihoazen, eta Karpov-en estrategia kontserbadorea bere fruituak ematen hasi zen». Honela, Intxaurrendokoek bi minutuetan sarturiko bi

goli esker «Kasparov-en taldea jakean ipini» zuten.

Aurten askotan gertatu den bezalaxe, ikastolako mutilek ez zuten asmatu partidua gelditzean, hots, denbora pixkat pasatzen utzi, arnasa hartu, eta ideia berrituekin partiduari buelta ematen saiatu. Honela maixuki ateratako kornerekin Intxaurrendokoak 1-3koa egin zuten.

«Denbora asko geratzen bazen ere, Kasparov handiak zuzendutako mutilek ez zuten lortu berriz ere kanpotarren atea zulatzea». Azken minutu hauekin Intxaurrendokoek atezaina

bikain aritu zen, horitxoan ahalgin guztiak bertan behera utziz.

Urte guztia «itzalean» aritu ondoren, «aipamen berezia merezi du Tolosaldeko limusin gidari Amatrik. Badirudi Burgos aldean egiten dituen konzentrazio aldiek txispa berezia ematen diotela. Bezero bereziren bat izango al du Amatriain erbinudeak Burgos aldean?», diote, umoretsu.

Usabalen Jabi delegatua, «Iñaki Kasparov entrenatzailea», Domentxe, Telletxea, Yustos, Gil, Kalisto, Barriola, Alonso, Amatriain, Joniko eta Ekhi izan ziren. «Joniko gaztea lehen taldearekin estraineiko aldiz aritu zen urte bikainaren ondoren. Filialeko Ferrariak aurre-erapauso hau emateko kondizioak badituela erakutsi zuen beste behin».

Harrobiari dagokionez, Mourinho-ren taldeak 4-1 irabazi zuten.

KULTURA ▶

Hasi dira Bordondantzako entseguak

Urtero bezala, sanjoanetan, Bordondantza egingo dute Udaberri dantza taldekoek. Hori dela eta, entseguak ostegun honetan hasiko dira, 20:30etan. Hauek, beti bezala, Igarondo igerilekuan egingo dira.

KULTURA ▶

Musika Eskolako aurrematrikula epea irekita dago

Musika Eskolako 2006-2007 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea ireki zuten atzo. Aurrematrikula hau ikastetxe horretako ikasle izan nahi dutenentzat izango da. Izen emateko epea hil honen azkeneko egunean, hau da, 31ean, itxiko da. Honetarako bulegoak ordutegi hau izango du: asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00era bitartean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 ▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 ▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 006800

▶ Gemikako arbola: 006900
 ▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536
 ▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 ▶ **Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

Garraioak.
 ▶ Renfe: 902 24 02 02
 ▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621
 ▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420
 ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.
 ▶ Ertzaintza: 538820
 ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016
 ▶ **Iurramendi goitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

ZIZURKIL • MUSIKA



Teodoro Hernandorena Lehiaketako ipuin sarrituen kontakizuna

I. García • Kutxa omagiko bat aurkeztu zuten atzo Iruiz Lizarragak Atxolondoko kultur etxera joan ziren haurrei. Haurekin batera, eta hitz magiko batzuk erabiliz, kutxa ireki zuten, eta bertatik hainbat paper atara zituzten. Haurretako batek Teodoro Hernandorena IV ipuin Lehiaketako ipuin sarrituak zirela esan zuen. Halaxe zuten. Paper horietan ipuin sarrituak hiru zauden, eta ipuin korralariak horietatik kontaktatu zituzten. Bide batez, ipuin sarrituak biltzen dituen liburua aurkezteko balio izan zuen ekitaldiak. L. GARCIA

Advertisement for 'Batxilergoak' (Secondary Education) featuring a young girl and text about educational services.

Advertisement for 'Batxilergoak: LA SALLE-BERROZPEN' (Secondary Education: La Salle-Berrozpen) with contact information and a logo.

Advertisement for '207 berria Bizi handikoa' (207 new, life from here) featuring a stylized car illustration and 'TOLOSA MOTOR, S.A.' contact details.

AHT •

Hitzarmena salatu dute gazte asanbladek

«Obra erraldoi guztiak bertan behera uztea» exijitu dute

ERREDAKZIOA

Esualdeko gazte asanbladek idatzitako hitzarmen baten bitartez gogor salatu dute «Eusko Jaularitza eta Espainiko Gobernuak Euskararen Funtzio proiektuaren obrak hasiteko izenpetu duten hitzarmena». Bi izenpetzaileek obra erraldoi guztiak bertan behera uztea, politika inpostazaleak gelditzea eta herriaren tritza errespetatzea exijitzen diete.

«AHTren proiektua modu inpostazalean burutzen da. Administrazioeko organo erabakitzaileen eta herritarren artean leizean zabaldua eta udalerririk gabeko tritza mesprezatuak, diote idatzian.

Herrien eskualdeen eta giza-arearen interes orokorren gaitetik hemengo eta hango gobernuak kapital handiaren interesak ematen dituzten lehentasunaren adibide gordina da AHT», eta beste adibide batzuk ere aipatzen dituzte: «Energia plan erraldoiak, superportuak, autopistak...».

Gazte asanbladakoei gaineratzen dutenez, aberriaren esanetan, AHTk ezin omen du gehiago ixararren, baina nahiko aurreratu da goen euskal bizilagunak ere ezin dezakeela luzaroan ixararren guztiz aharzuta dauden.

LEABURU •

Tutorearen bisita jasoko dute gaur KZgunean

ERREDAKZIOA

Leaburu Txaramako KZguneak tutorearen bisita jasoko du gaur, 09:00etatik 13:00etara. Itzultzaileak mintegia emango du, 10:00etatik 12:00etara.

AMASA • KIROLA

Iazkoak gailendu dira beste behin

Ramuntxo Lamotek eta Nerea Amilibiak irabazi dute Loatzoko Igoera-Jaitsiera



Podioa lortu zuten korrikalariak: Ibarbia, Murua, Amilibia, Lamot, Izagirre eta Añ Choua. WAZ

ERREDAKZIOA

Loatzoko Igoera-Jaitsieraren XIV. edizioa burutu zuten igandean Amasan. Uxo-Toki elkarleak antolatuta, Iazko Iribasiek berriz jantzi zuten txapela. Ramuntxo Lamot sarararak (46:02) eta Nerea Amilibia aiararak (53:07) lortu zuten lehen postua. Lamotek beste behin irabazi du eta, beraz, hirugarren txapela lortu du jarraian. Gizonzkoetan bigarrena Pello Izagirre asteasuara (47:20) izan zen, eta hirugarrena Hasan Añ Choua bilabonotarra (47:55). Emakumezkoetan, bigarren postuan Aitziber Ibarbia zuzurkildararak (57:47) amaitu zuen, eta hirugarrena Josune Murua zarautzararak (1:07:08). Sailkapen guztia Herriko webgunean ikusgai dago.

Gustura zegoen Nerea Amilibia bere lorpenarekin. «Oso polita da iguera», azaldu du Herriko korrikalariak. Hilaren bukaeran egingo den Aizkorriko Maratinoako prestatutako balio izan dio probak. «Lehenengo euskalduna izatea dut behur, baina horrelako proba batean edozein gauza gerta daiteke», dio maratolari buruz.

Parte-hartzaile ugari izan ziren Loatzoko Igoera-Jaitsieran, 45 gutxiira. Ezin ugari izan zen proba ikuslertza, bai Amasara eta baita Loatzora bertara ere. Guztuk gustura izan zirela parte-hartzaileek opari ugari izan zituzten (oilaskoak, untxiak, trufelak, kirol materialak, bi afari, gaita, bakailoa, botila ardoak, botila txanpainak, txapeak, loreak, dirua...). Ikusleak ere gustura, hamaitzeko dohain banatu baitzuten.

Haurretzako antzerkia

Amasan izango da ekitaldirik asteburu honetan ere. Igandean, 16:30ean, Amasako Kultur Etxean haurretzako antzerkia egingo da Amasako gazteen eskutik, bertako Kultur Elkarleak antolatuta. Hazi nahi ez zuten haurrak antzerkia ikusgai izango da hasieran. Ondoren merienda, eta bukatzeko Arretalde bar zinean obra.



Irakurri Irakurri

Aukeratzeko aukera izan nahi dut.

Erretiratzeko garaia datorkituzean, sasoi hori nola bizi nahi duzun erabakitzeko aukera izatea gustatuko litzazkete, ez da hala? Zeure irudimena beste mugarik ez zates duzu ametse. Mundu osoan berrera bidia zenezake, edo besterik gabe, egunkero une gutxiaren erasoengatik harbi egon, edo zergatik ez? Nahi duzun moduan eta tokian aseden hartu edo irakurri.

Aukerazten duzina aukerazten duzula, Kutxaren Aurreikuspen Planak duzue hori erdiekitzeko modurik onena. Etorkizunean izango dituzun diru-sarrerak ziurtatuz gainera, zure aurrerikien truke nahi duzun erenagarritasuna eta segurtasuna bermatzeko balaitzite plan hauak.

KUTXA AURREIKUSPEN-PLANAK Bihar zer egin behar duzu?

Kutxa Aurreikuspen-Planak Kutxa Bk BGAra daude atxikita.

www.kutxa.net



IBARRA ▶ KULTURA

IÑIGO TERRADILLOS

Hauspoa elkarteak antolatutako duen Olinpiada Txikiak bete du aurtengo ibilbidea, eta datoren urterarte agurtu da. Antolatzaileen esanetan, «partehartze handiarekin», gainera. Sailkapenari dagokionez, Xepla taldea izan da puntu gehien batu dituen taldea, eta atzean geratu dira Uzturpe B, bigarren postuan, eta IKE A, hirugarrenean.

Larunbateko mimika jokoa eta edari dastaketaren ostean, ibilaldi neurtua, sukaldaritza lehiaketa eta herri bazkariaren txanda izan zen igandean. Eguraldia lagun zutela eta «giro oso onean» burutu zituzten hiru ekitaldiak. Hala, ibilaldi neurtuari Uzturpe B taldea izan zen irabazlea eta IKE B eta Uzturpeko ikasleak geratu ziren atzean. Sukaldaritza lehiaketa,

Herri giroan agurtu dute Olinpiada Txikia

Xepla taldea izan da txapelduna, eta atzetik sailkatu dira Uzturpe B eta IKE A; «harrera ona» azpimarratu dute



Bazkariaren ostean, kantu saioa egin zuten parte hartzaileek. HITZA

tan, berriz, bakailoa prestatu behar zuten parte hartu duten 12 taldeetako kideek, eta epaimahaiaren aburuz, Uzturpe Bkoek eginikoa izan zen denetan goxoenak. Xeplakoak eta IKE Akoak geratu ziren proba honetan bigarren eta hirugarren postuan. Igandeko probetan Uzturpe B gailendu zen arren, bi asteburuetan zehar lortutako puntuen arabera, Xepla taldea izan da aurtengo irabaz-

SAILKAPENA ▶

Taldea

1. Xepla
2. Uzturpe B
3. IKE A
4. Sendi Ekintza B
5. Merkatariak
6. Sendi Ekintza A
7. IKE B
8. Uzturpeko ikasleak
9. Ingo al du
10. Uzturpe A
11. Uzturpe C
12. Bizi Nahi

lea. Hain zuzen ere, proben osteko herri bazkariaren egin zuten sari banaketa. 150 lagun inguru elkartu zituen bazkari honek; horren adibide da aurtengo Olinpiada amaitzeko burutu zuten kantu saioa.

OREXA ▶ SANTAKUTZAK

Santakutz eguneko oilarraren igoerak emango die gaur amaiera herriko jaiak

Pilota partidak, nagusien eta gazteen arteko sega apustuak eta pintxo lehiaketak eta dastaketak osatuko dute gaurko egitaraua

I. TERRADILLOS

Azken egunera iritsi dira aurtengo santakutzak. Hori bai, jaietako egun handia denez, behar den moduan amaitzeko makina bat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Hala, eguerdiko mezaren ostean, Odei Iturriz eta herriko pilotarien arteko partida izango da ikusgai. Ondoren, herriko nagusiek gazteei egindako desafio moduko bat izango da udaltxeko ondoko zelaietan; lehengo lan zaharretan gazteak ez omen dira hain trebeak nagusien ustez, eta hori sega probarekin erakutsi nahiko dute. Erakustaldi bereziaren ostean, pintxo lehiaketa eta dastaketa

gingo dute, eta arratsaldean oilarraren igoerarekin agurtuko dituzte aurtengo jaiak.

Tradizioari eutsiz

140 lagun bildu zituen udaltxeko ganberan eginiko herri afariak larunbatean, eta trikitilariak alaiturik, «giro ederra» izan zen bertan nagusi. Giro horrek luzaroan jarraituko zuen; izan ere, DJ Bullen saioa izan zen ondoren, eta batzuri zoparen ostean, berriz, Gari eta Iñaki trikitilariekin eginiko kalejirak hartu zuen lekukoa. 07:00ak aldera ekin zioten etxez etxeko ibilbideari, herritarrei piezatxoak eskainiz, eta trukean jatekoa eta edatekoa

EGITARAUA ▶

GAUR, SANTAKUTZ EGUNA

13:00. Pilota partida: Odei Iturriz herriko selekzioaren kontra eta apustua herritarren artean.
14:00. Pintxo lehiaketa eta dastaketa.
19:00. Oilarraren igoera.

jasoz. Eguerdira arte egon ziren herrian tradizio handia duen eta jaietako berezitasun handiena den kalejira eginez. Igandeko egitaraua, xare eta joko garbi partidek, sagardo probaketak, Mendiluzeren eta Irazuren bertso saioak eta disko festak osatu zuten.



Goian, parrandako une bat. Behean, sagardo probaketa. ENEKO MAIOZ

iragarki laburrak ▶

BASABI Inmobiliaria

Pablo Gorosabel, 40
1. planta - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Fax: 943 65 55 87
img.: 649 368 994

Alkiza. Eraikitzen ari diren bi familientzako etxea, erdisotoa eta hiru solairu.

Alkiza. Familia bakarreko txaleta, 4.000 m2 dituen lursailarekin. 120 m2 dituzten 3 solairu.

Andoain. Santa Kruz auzoan, 80 m2 dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Igogailuarekin.

Ikuspegi ederrak.

Anoeta. Duplex etxebizitza

estreinatzeko, lau logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta terrazarekin. Garajea aukeran.

Belauntza. Bi familientzako etxea. Bi solairu, 270 m2-ko lursaila.

Berastegi. Familia bakarreko txaleta salgai. 3.500 m2-ko lursailarekin.

Elosua. Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m2-ko lursailarekin.

Tolosa. Zumalakarregin, 150 m2-ko etxebizitza. Egoera ezinhobean. Garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Eraikuntza berrian azken etxebizitza salgai. 65 m2 erabilgarri.

Tolosa. Santa Maria plazan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Egoera ezinhobean.

Tolosa. Trinkete plaza, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea

terrazarekin, bainugela eta komuna, garaje itxia.

Tolosa. Belaten, trasteleku berriak salgai argiarekin eta aire-erazgailuarekin. 9.480 eurotik aurrera.

Tolosa. Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala salgai. **Guztia erakusleho.**

Tolosa. Pablo Gorosabel. Izkina egiten duen 45 m2-ko lokal ederra salgai. Erakusleho handia.

ARESO ▶ HIRIGINTZA

JAIONE ASTIBIA

Atzo ekin zioten herri-bide para baten zolaketa egiteari Areson. Gereñorera eta Pedronera doaz herri-bidea alde batetik, eta Txuina eta Santura doana bestetik, bi pista hauek brea botatzen hasi ziren atzo goizean.

Breaz kargatutako kamioiak iladan, 6 ikusi zitezkeen zain, etorri ziren herrira, eta plaza zaharrea hustutzen zuten zama. Han beste bi makina ari ziren lanean, brea hori aitatua-ko herri-bideetara garraiatzeko makinak kargatzen. Han hedatu eta zorua trinkotzea geratuko da ondoren. Hala adierazi diote Hirzari udalzetik.

Pista horiek berritzeko lanak otsailean hasi zituzten. Orduan bide-bazterrak garbitu eta egokitu zituzten eta brea botatzeko zorua berdindu; atzo ekin zioten zolaketa egiteari azkenik.

Lan hauek 50 mila euroko aurrekontua dute. Bere garaian jakinarazi zuten, Nafarroako Gobernuak %70eko diru laguntza esleitu zion Aresori lan hauetarako, 35 mila euro jasoz. «Gainerakoa herriko altxorretik» ordainduko dute.

Herri-bideen zola berritze lanak egiten

Gereñone-Pedrone eta Txuine-Santuru aldeko bideetan brea botatzen ari dira



Atzo eguerdian, makinak lanean, brea garraiatzen. JAIONE ASTIBIA

Jakinarazi dutenez, bestalde, «herrigunean zehar dauden zuloak estaltzeko» baliatuko dute aukera. «Behin-behineko

moldaketa batzuk eginen dira, iraila aldera herrigunearen urbanizaketa-lanak hasi bitartean», zehaztu zuten.

LEITZA ▶

Plazako Pilota Txapelketan izen-ematea zabalik

Aurtengoarekin hamalaugarren urtez, Eskuz Binakako Plazako Pilota Txapelketa antolatzen lanetan hasita daude Aurrerako kideak. Jakinarazi dutenez, bertan parte hartu nahi duten bikoteek maiatzaren 5a arteko epea dute izena emateko. Plaza auto-eskolan eman behar da izena, bikoteko 15 euro ordainduz. A ditzera eman dutenez, «txapelketa 15 urtetik gorakoentzat» da. Izena ematen duten bikote kopurua ikusi ondoren prestatuko dute partiduen egutegia. Edozein moduz, asteburutan, zehazki larunbat arratsaldetan, jokatu ohi dituzte partidua, herriko plazan. Hauxe du, gainera, ezaugarri berezia txapelketa honek, ezker paretatik gabeko pilotalekuan jokatzeko dutela. Bestalde, pilota goxoa erabiltzen dute.

PILOTA ▶

Abadiñoako Pilota Txapelketa irabazi du Sagastibeltzak

Artiz Sagastibeltza leitzarrak Abadiñoako txapela irabazi zuen astelehenean. Atzeko kodroetan Ander Arangoiti lagun zuelarik, kadeteen mailako binakako finala 22 eta 15 irabazi zieten Kortabarría-Gartzia bikoteari, sari gorena lortuz. Bestalde, aiatu behar da Sagastibeltzak berak Erreka Txapelketako final-laurdenetako partiduan ez zuela aurrera jarraitzeko txartelik lortu; izan ere, Larriaga bere bikotea min hartuta egoki, ordezko batekin jokatu behar izan zuen, eta ez zuten zortetik izan, kasu honetan 22-15 galduz. Txapelketa horretan ere, baina alebina mailan, finalurrekoak jokatzekoak dituzte gaur bertan, 17.00etan, Donezteben, A. Olano-I. Gilek eta J. Iparragirre-X. Jaunarenak; kadeteetan, berriz, A. Aramburu-J. Jaunarenak.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Apirilean ere, azken ostiraleko elkarretaratzea egin dute

J. Astibia ▶ Etxerat-ek deitutako apirilako azken ostiraleko elkarretaratzean 40 lagunek parte hartu zuten Leitza. Bertara bildutakoak bi taldeetan banatuta jarri behar izan zuten —irudian, iturriko taldea—, «19 lagun baino gehiago elkartzeko gero, parte-hartzaileek isunak jasotzeko arriskua dute eta». Elkarretaratzeen komunikazioak egin ohi dituztenei askotan jarri izandu dizkiete Estatuko Segurtasun Indarrek isunak. JAIONE ASTIBIA

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrerak beste hiru puntu eskuratuta, denerako aukerak ditu oraindik

Liderrarenganako aldea, 4 puntutik 2ra moztu du, 1 eta 3ko emaitzaz

J. ASTIBIA

Larunbatean jokatu zuen Aurrerak partidua, Beti Onak taldearen aurka, eta 1 eta 3ko emaitz argiarekin, berriz ere igoerako ligaxkan jokatzeko bermeak gero eta ziurrago egiten ari da.

Atarrabiarrek ez zioten traba handiegirik jarri zelaiaren aurreartarrei; ongi antolatutako tal-

dea azaldu zuten berriz ere Irujok eta Arrizurietak, eta 3 puntu irabazita etxeratu ziren leitzarrak. 49 dituzte.

Igoerako ligaxka jokatu duen laukotean egoteko ez ezik, liderrarenganako, Gazte Berriak-enganako aldea 4tik 2ra jaisteko baliozkoak diren hiru puntu eskuratu zituzten; liderrak Irunberrirekin 2nako berdinketa egin da puntu baka-

rra gehitu dio bere kontuari; Aurrerak, berriz, 3. Baztanek, 3.ak (48 puntu), beste hainbeste egin du; San Inazioerikoko aldea handitu egin da, ordea, galdu egin baitu (41 puntu).

Bestalde, aitatzekoa da Aurrerako talde gazteak, 0-3 galdu egin zuela Eguesibarrekokin. 21 punturen jabe eta 11. lekuan, hauxe zuten Ligako azken partidua.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 3a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Villabona. Jesusen Bihotza ikastola, 40. urteurrenean erakusketak bat egiteko, ikastolako argazkien eta dokumentuen bilketa egiten ari da. Hilaren 10a izango da horiek jasotzeko azken eguna. Informazio gehiago 943 69 23 22 telefono zenbakian.

HITZALDIAK

Tolosa. Ikasle mugimenduaren historiari buruzko saioa. 18:00etan, Otsabi auzo elkarte.

JAIAK

Orexa. Santakutz Eguna. 13:00etan, pilota partidua: Odei Iturriotz herriko selekzioaren kontra, apustua herritarren artean; 14:00etan, pintxo lehiaketa eta dastaketa; 19:00etan, oilarraren igoera.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F.. Loidi ebrea. 112.
Tolosa. Ollarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hirtzaren errepasoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-19:00. *Irauli uhinak*, Gaztesareak prestatzen duen saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).

21:00-22:30. *Bide okerretik*, Euskal Herriko musika mugimenduari buruzko saioa.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARGAZKI LEHIAKETA ▶



Dani Lanzeta (Ibarra). «Iratiko ikuspegi paregabetik, Pirinioak parez pare».



Itxaso Urdanpiletta (Villabona). «Ibiza. Nahiz eta espero genuen eguraldia ez egin, argazkian ikusten den bezala paisaia politik ikusteko aukera izan dugu».



Arantxa Eribi (Leitza). «Leitzako Plazaola trenbidea da. Paraje ikaragarriak ikus daitezke, Euskal Herriatik atera gabe. Ikusteko politenak bertan baitaude».

AGURRAK ▶



ZORIONAK
Asintxo eta Juli (Amezketza).
 Ondo pasa zuen urrezko ezteiak seme-alaba eta biloben partetik.



URTE ASKOAN
Amaia Otamendi.
 5 urte.
 Gurasoen partetik.



URTE ASKOAN
Unai Urkola Etxabe (Anoeta). Gaur 7 urte. Muxu handi bat etxeko partetik.



URTE ASKOAN
Juan Bautista.
 Zorionak familia guztiaren partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea



Eutsi gogor! Jo ta ke!



Zorionak, Punkarro! Hire kementa gure garaipena.